

BALIO PROPOSAMENA

Gure proiektua, nagusiki, etxerako hainbat objektu eta altzari egiten datza. Gaur egungo beroketa globala dela eta, sortzen dugun izugarrizko plastiko kantitatearekin zerbait egiteko momentua iritsi da. Gure egitasmoa, plastiko horrekin, aipatutako materiala egitea da eta modu horretan, bai gure eta bai gure planetarentzat onuragarria izango den proiektu bat martxan jartzea da guztion etorkizunari begira eta aldi berean, gure beharrak asetzea .

Etengabe ari gara izugarrizko plastikozko kantitateak sortzen eta ez gara guztiz kontzientziatu bai gure bizitza, bai gure planetarena suntsitzen ari garela eta mundu jasanezin bat sortzen ari garela gure etorkizunerako. Mota askotariko soluzioak jarri dira martxan baina beste plan asko era aldi berean aurrera jarraitzen duten bitartean, plastikozko material desberdinen ekoizpena batez ere, ez da asko konponduko. Birziklatu, plastiko kantitatea murriztu, beste material batzuk erabili... Baina ondo dakigu guztiok, plastiko sortzen eta erabiltzen jarraituko dugula eta beti geratuko dela kantitate handi bat ez duguna berrerabiliko eta kalteak besterik ez dituela sortuko.

Beste lurralde berri bat sortu da itsasoaren erdian, plastikozko lurraldea, hain zuzen. Suntsitzeko era bilatu behar dugu berehala. Gure enpresaren helburu nagusia da, plastiko horrekin, erabilgarria izango den eta denboraldi luzerako mantenduko den zerbait sortzea eta hori guztiari bi etekin nagusi ateratzea: plastiko berrerabili eta murriztu eta egunerokotasunean erabiltzen dugun materiala sortu. Lehen aipatutako arazo larriaren irtenbide eraginkorra izan daiteke denboraren poderioz.

Etxerako altzari eta material horiek, originalak eta ordura arte ikusi ez den estilo bat sortuko dugu, moderno eta probetxugarri ezaugarrien nahasketa baten ondorio gisa hain zuzen. Egongelan jartzen diren mahaitxoak, sofak, aulkiak eta ohiko altzariak egingo ditugu, baita gela edo komun batean jarri daitezkeen edozein material: apalak, materialak gordetzeko potetxoak, armairu txikiak, dekoratzeko detailtxoak... Orain arte imajinaezina izan den egitasmoa aurrera eramango dugu. Altzari eta objektu ikusgarri, polit, original eta batez ere, onuragarriak izango direnak.

Kostuen inguruan galdera asko sortu daitezke. Lehenik, argitu, edozein adinetarako zuzendua dagoela. Altzariak erosiko dituztenak helduak izango dira baina haien gela dekoratu nahi izango dutenak ere gazteak izango direla. Prezioak ez dira oso altuak izango lehengai nagusia ez dugulako erosi behar izango. Bakarrik pinturak eta muntatzeko tresnak erosi beharko ditugu eta esku-lana ordaindu. Gainera, gure bezeroek, hornitzailearen lana egingo dute zeharka. Haien arduratuko dira, erabiltzen ez duten plastikoak, guk jarriko ditugun guneetara eramateaz.

Esan dugun bezala, originaltasun, berritasun eta pertsonalizazio ezaugarriak izango dituzten eta pentsaezina izan daitezken hainbat material sortzea izango da. Guk hartzen dugun konpromezua, ingurunearen eta norbanakoaren ongizatea bermatzea beti ere prezio merkeetan.